

BILLABONATARRAK KONTZENTRAZIO EREMUETAN

Adolfo Lozano Olazabal Mauthausen-Guseneko kontzentrazio esparruan hil zen 1941eko azaroaren 7an. Alberto Beaufort berriz, aske aterata zen. Baina ez ziren villabonatar bakarrak izan gerra amaituta ihesari ekin eta atxilotuak izan ziren billabonatarrek.

Adolfo Lozanoren inguruan sakon aztertzeo aukera izan badugu ere, honako lan honetan, kontzentrazio esparruak ezagutu zituzten beste billabonatar batzuk ekarri nahi ditugu lehen lerroa.

Alberto Pierre Beaufort Barrengedo

Villabonan jaio zen 1927ko irailaren 24ean. Bere jaiotze ziurtagiriaren arabera kale Nagusia 9ko lehen pisuan jaio zen. Aita, Juan Bautista Beaufort eta bere ama Isabel Barrengedo; 1901. urtean eroldatu zen, azken hau, Villabonako udal eroldaren arabera, Nagusia 5 etxepean. Urtebete berandua-go Nagusia 9an. Udak Artxibategian (218-02 signatura) irakur daiteke, joan-etorriko egoiliar gisara izen eman zuela amak. 1903an berriz baja eman zuen. Ez dago bestelako arrastorik Alberto Beauforten inguruan.

| | | | | | |
|--------|----------|---------------|----|---------|------------------|
| 59 541 | Beaufort | Albert Pierre | 17 | 14 7 08 | Clermont Ferrand |
| 59 542 | Beaufort | Albert Pierre | 17 | 10 2 99 | Nevers |
| 59 543 | Beaufort | Albert Pierre | 17 | 24 9 27 | Villabonna |
| 59 544 | Beaufort | Albert Pierre | 17 | 24 9 27 | Villabonna |

Iturria: Mauthausen memoriaia, 2015. Dokumentu hau da Mauthausuneko memorialeko artxibategian gordeta dagoena. Bertan argi irakur daiteke Alberto Villabonan jaio zela. Baita bere preso zenbakia ere.

Mauthauseneko Artxibategiaren arabera nazionalitate frantziarra zuen. Jaiotze agiriaren arabera ordea, argi dago Villabonan jaio zela. Aipatu agiriaren bertan zehazten da gurasoak Londresen bizi zirela eta jatorriz Baionakoak zirela.

1944eko martxoaren 22an atxilotu zuten, Alemanek Frantziako iparralde euren mende hartu ondoren, Compiègne izeneko stalag edo espetxean preso egon zen hasiera batean. Martxoaren 25ean, Mauthausenera eraman zuten. 59544 zen bere preso zenbakia. Handik Guseneko azpi eremura, gero berriro Mauthauseneko.

1945eko maiatzaren 5ean geratu zen libre. Kasik urtebete egin zuen bertan. Baldintzapeneko atxiloaldia bezala kategorizatua izan zen bere kasua. Egun honetan AEBen Armadak kontzentrazio eremua askatu egin zuen.

Urte bereko martxoan, esate batera 84.000 preso zeuden Mauthausenen, eta horietako gehienak azpi kanpoetan barreiatuta (65.000 inguru).

Mauthausen III. graduako kontzentrazio eremu gisara identifikatua zegoen. Hau da gogorretan gogorrena.

Juan Peña Villarreal

18 urte zituen. 1939ko otsailaren 12an Argelesen preso hartu zuten. *Gernika Berri* batailoiko kidea zen. Aipatu batailoia nagusiki EAko kideez osatuta zegoen. Torneroa ogibidez. Gurseko kontzentrazio esparrura eraman zuten gero, bertan, Islote C-B-15-G 5ean egon zelarik preso. 5429 zen bere preso zenbakia.

Martin Gonzalez

1939ko otsailaren 12an Argelesen preso hartu zuten. *Gernika Berri* batailoiko kidea zen eta 5563 zen bere preso zenbakia.

Angel Garcia Etxarren

1917ko maiatzaren 26an jaio zen. 20 urte zituen kontzentrazio esparrura eraman zutenean. *Gernika Berri* batailoiko kidea. 1938ko errenplazokoa. 1939ko otsailaren 12an atxilotu zuten Argelesen, preso atxiki zuten hasiera batean baina gero Gursera eraman zuten 1939ko ekainaren 27an (Islote B-P-M-G5). Libre geratu zen 1939ko uztailaren 14an. 5358 zen bere preso zenbakia. EA alderdiko ordezkaria zen eta pilotan jardun zen. Francisco Garcia eta Celedonia Etxarren zituen guraso.

Hilario Gracia Ilardia

1917ko maiatzaren 26an jaio zen Villabonan. Erreterria izan zuen bizileku. Komunista zen. PCn militatu zuen eta MAOCeko kidea izan zen (Alderdi komunistak sortu zuen faxismoaren aurkako langile eta nekazari ez osatutako milizia hain zuten ere). Arotza ofizioz. 21 urte zituen lehen aldiz kontzentrazio esparru batera eraman zutenean. Karabineroa izan zen Herralde Katalanetan. Karabineroak gorputz polizial armatua izan ziren, 1829. urtean sortu ziren eta haien egitekoa kosta eta mugen zaintza zen, kontrabandoa eta iruzur fiskalaren aurka egitearekin batera. 1940. urtean gerra zibila amaituta,



Iturria: Oñatiko Probitzia Agiritegia.

Guardia Zibilaren eskuduntza izatera pasa zen. 1939eko otsailaren 2an Le Boulouen atxilotu zuten. Handik Saint Cyprieneko 12. kanpora eraman zutelarik. Gero, ordea Gursekora: Islote C-B1G4kora hain zuten ere. Bere preso zenbakia 3304 zen. Kale Berria 3 zuten bizileku. Gerran jardun zuen bitartean zauriak jasan zituen. Frantziar Estatuaren errefuxiatu egon zen. 1986. urtean zendu zen.

Jose Telletxea Laskurain

1912ko irailaren 8an jaio zen. Nagusia 59an bizitu zen hasiera batean gero Nagusia 40an. Bere gurasoak sortzez nafarrak, Igantzikoak. 1933an gaixo zegoela eta San Antonio Abad ospitalean egon zela jakinarazten duen idatzia dago Udak agiritegian. 1934ko errenplazoa sartu zen ejerzitoan. 24 urte zituen Argelesen preso hartu zutenean. Gero Gursekora eraman zuten Islote A-B17-G1era atxiki zutelarik. UGTko kidea zen. Preso zenbakia berriz, 942.

Alejo Ramos Arrate

EAko militantea. Herralde Katalanetan aritu zen soldadu gisara *Alpino* batailoian. *Gernika Berri* batailoiko kide gisara atxilotua eta Argelesen preso atxikia 1939ko otsailaren 12an. Handik Gursekoera Islote A-ra hasiera batean eta gero Islote C-B-G1kora. 1939 abuztuaren 1ean libre geratu zen. Pelotan ere aritzen zen.

Jose Ignacio Garmendia Urkola

44 urte zituen atxilotu zutenean. Argelesen preso hartu zuten eta gero Gursera eraman zuten Islote C-B15-G-2 hasiera batean. Gero A isoltera eraman eta handik aterata zen libre 1939ko abuztuaren 28an.

Hauk aske geratzea lortu zuten. Adolfo izan zen bizirik ateratzea lortu ez zuen billabonatar bakarra.

Adolfo Gursen, campo des basques

Adolfok 1936ko apirilaren 26an bere emazteari igorritako gutun honetan ondo irakur daitekeen moduan, Gurseko kontzentrazio eremua ezagutu zuten (Islote C- Barracon 6 Campamento de Gurs). Aipatu gutunean, bere familiar bere egoera pertsonalaren berri ematen die eta lasaitasuna transmititzen saiatu. Gurs izan zen Adolfoaren ihesaldi gogor eta betikoaren lehen abiapuntua, beste euskaldun askorenaren antzera. Gurseko kontzentrazio-esparrua, Bearn eskualdean (Okzitania) kokatua, Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz, errefuxiatuentzako, 1939ko martxoan eraikitako kontzentrazio-esparrua izan zen. Euskal Herriarekin mugan zegoenez, euskal herritarrei aterpe ematea izan zuen lehendabiziko helburua. Hala ere, Katalunia galdu ondoren, leku guztietako iheslariak hartu zituen, Frantziako kontzentrazio-esparrurik handiena bihurtzeraino. Bigarren Mundu Gerra hasi eta berehala, frantziar gobernuko Gurseko kontzentrazio-esparruan aleanar herritarrek eta etsai zituen beste herraldeetakoak ere sartu zituen, baita ideologia zela eta arriskutsu izendatu zituen frantziarrak ere. 1940ko ekainaren 22ko armistizioaz geroztik, Vichyko gobernuko frantziar ez ziren juduak izan zituen hantxe, Alemaniara bidali arte. 1946an, behin betiko itxi zuten.

Garaiko autoritate frantsesek adierazi moduan *campo des basques* bezala ere ezagutu zen; bertan ziren baita nazioarteko brigadistak, abiadoreak, espainiar jatorrikoak. Denek osatu zuten lehen Gurseko eremua. Lluís Ferran de Pol idazle katalanak, Saint Cyprien eta Barcares (Frantziako kokatuak, hauek ere) eremuetan atxilo zegoela jasotako oharretan oinarrituta, bere memoria-egunerokoa oso ondo jasotzen du, euskaldunak halaxe gogoratuz:

“Los vascos pasan por ser una raza fuerte, sana, de anchas espaldas y brazos nervudos. Hoy en esta fina madrugada primaveral, alineados para partir hacia un campo que se organiza para ellos solos, no tienen el aspecto bravo que me habían explicado. ¿Cuándo dejaré de soñar? Son unos hombres flacos, cansados, maltrechos. Ni ellos han podido resistir tan duras pruebas”.

Gurseko kokaleku hau zehaztu zutenean bi aste baino ez ziren falta gerra zibila amaitzeko (1939 martxoaren 15). Apirilko lehen egunetan, frantziar jatorriko trenek milaka euskaldun ekarri zituzten, eremu tren geltokirik hurbilenera, Oloron Saint Mariekora. 4178 euskaldun gutxi gora behera; denak beste eremu batzuetatik: Argeles, Barcares eta Saint Cyprienetik nagusiki. Sortu berri zen La Société Nationale des Chemins de Fer-en (SNCF bezala ezagunagoa) egin zuten bidaia. Trenetik jaitsi berri, tokian tokiko agintariak agurtzen zituzten bitartean.


Argeles, Barcares eta Saint Cyprienetik zetozen 15.000 pertsonentzako inguru pentsatua zegoen. Kopuru hori, hain ezagunak ez ziren beste kontzentrazio eremuetatik etorritako pertsonak ere osatu zuten.

42 egunetan eraiki zuten eta Barcareseko eskema berdintsua baliatu zuten, barrakoia ziren hango bizitzaren elementu nagusia. 24 metro altueran eta 6 zabaleran, erabilerarako espazio erreala, berriz, 2,5 metro zirelarik. Egurrezkoak ziren.



Iturria: Concepcion Lozano Bengoa

Adolfok, familiari heriotz atarian



Iturria: Bengoa Lozano familia. Adolfok emazteari idazten dio. Frantziako preso egotetik Alemaniara atxilo egotera pasa dela ziurtatzen du bertan. Ondo dagoela eta laster haiek besarkatzeko itxaropenez. Tabakoa bidali dezaketela adierazten dio emazteari. Kasik urtebete berandua-go hil zen.

Gutuna zentsuratua izan zela ikus dezakegu, Donostian bertan. Alemaniara hotz gehiago egiten duela adierazten die.



Akordatzen garelako bizirik daude

Billabonatarrek kontzentrazio eremuetan

www.amasavillabonaoroitzen.net

ADOLFO LOZANO OLAZABAL, II. Errepublikako Tenientea Gusen-Mauthauseneko kontzentrazio eremuan hil zen

Villabonan jaio zen, 1897ko irailaren 27an, 1941. urteko azaroaren 7an hil zen Gusen- Mauthauseneko (Austria) kontzentrazio eremuan.

Irakaslea zen Hernanin. 1918an soldaduskara joatea egokitu zitzaion. Soldaduskan zela, bi hilabeteko tartean, aita eta ama galdu zituen (Juan, ogibidez karabinaria eta Joakina, etxeko lanetara dedikatua). Bere anai bakarrak berriz, Miamira joatea erabaki zuen, zesta puntako jokalaria gisara. Villabonan bakarrik geratu zela ikusita, Adolfok ejertzitoan geratzea erabaki zuen eta bertan bere ikasketak osatu zituen. Hasiera batean Brigada izateko ikasketak burutu zituen, baina apurka-apurka ejertzitoan bere graduazioa nabarmen igo zen. 1936eko maiatzaren 26an Concepcion Bengoaren ezkondu zen, Donostian. Alaba bakarra izan zuten, Concepcion.

Adolfo, ezkondu artean Donostian kokatuta zegoen Infanteriako kuartelean bizi zen. Bi hilabetera ordea, gerrak eztanda eta Adolfo Bartzelonara destinatua izan zen. Bere emaztea ere Bartzelonara joan zen.


Bere jaiotze ziurtagirian jasota dagoen moduan, kale Nagusia 57an jaio zen, gaur bera jaio zen tokian lur zoru bat baino ez da geratzen, eraikina bota egin baitzuten.




Iturria: Aritza Kultur Elkarte.

Bartzelonan burututako erasoaldia, errepublikarentzako bukaeraren hasiera izan zen, batez ere borrokan ari ziren lagunentzat. Adolfok, ia beste miloi erdi lagunekin batera, muga gurutzatu behar izan zuen. Honela hasi zen Europako kontzentrazio eremu desberdinetako joan etorria. Lehenik, Frantzian. Gero Austrian. Ordurako Kaboa zen eta Artillerian parte hartzen zuen.

Gerra galduta, ordea, haren alde modu aktiboan jardun zuten eta errepublikarrak ziren militar eta arduradun politikoen aurkako mendekua izugarria izan zen. Ihes egiten saiatu ziren asko, baita Adolfo ere, baina atxilotua izan zen; hainbat espetxe eta kontzentrazio eremu ezagutu zituelarik: Saint Cyprien, Gurs, Treves, Mauthausen eta Gusen-eko kontzentrazio eremuak hain justu, azken honetan hil zelarik. Adolfo ez zen inolako alderdi zehatzekin lerratu. Bere ibilbide militarra II. Errepublikaren mesedetan garatu zuen eta bistan da, beronen defentsa izan zuen lehentasun.



Adolfo Lozano paisanoz. Iturria: Concepcion Lozano Bengoa.



Iturria: Villabonako Udal Agiritegia, 1918.

Villabonako Udal erregistroan, Adolforen izena ageri den errolda agiria, Pedro Mutio garaiko alkateak sinatua.



Iturria: Villabonako Udal Agiritegia, 1919.




Dokumentu honek erakusten digu boluntario gisara aritu zela 137. brigada mistoan. 1937ko maiatzaren 26an sortu zen batailoi hau, ekialdeko ejertzitoaren erreserba gisara.


Ardurak areagotzen errepublikaren aldeko ejertzitoan





Iturria: Villabonako Udal Agiritegia, 1918.




Iturria: Salamancako Memoria Historikoaren Artxibategia.





Iturria: Villabonako Udal Agiritegia, 1918.



Iturria: Salamancako Memoria Historikoaren Artxibategia.



Iturria: Villabonako Udal Agiritegia, 1918.




Iturria: Salamancako Memoria Historikoaren Artxibategia.

Gerra galdu eta deportatua

Adolfo, Stalag XII D Trier-etik zetorren. 1941eko apirilaren 3an iritsi zen Mauhauseneko kontzentrazio eremura. Handik, Gusenekora. Lehenean, 4148 zen bere preso zenbakia. Bigarreanean, aldez, 12998.

Adolfo Guseneko kontzentrazio esparruan hil zen, 1941eko azaroaren 7an. Heriotzaren arrazoia biriketako neumonia irakurri dezakegu. Artxiboko ikertzaileen esanetan, heriotzaren eguna eta zioa, sarri ez dira oso fidagarriak izaten.



Iturria: Mauthausen Memorialeko Agiritegia, 2014.

Alemanek, Frantziako iparralde okupatu zutenean, bertako Estatu Polizia Sekretuaren eskutik - Gestapo - atxilotua izan zen. Modu berean, errepublikar اندانا atxilotuak izan ziren Frantziar eremuko kontzentrazio esparruetan. Alemaniaren menpe zuden herrialdekoetara eramanez Austria, kasu. Adolfo, Red Spanish War Volunteer gisara kategorizatua izan zen. Espainian errepublikaren alde borrokan jardun zutenei izendatzeko balio zuen izendapen honek. Gorriak katalogatzeko eta zigortzeko, esan dezagun. Heinrich Himmler Gestapoko buruak -Reichsführer-SS-tako kideak, atxilotu hauek guztiak Protective Custody- bezala katalogatu zituen, babestutako zaintzape moduko bat zen, gertutik jarraitzen zituzten. Himmlerrek Francorekin zuen harremana zuzena izan zen. Donostian ere izan zen hark gonbidatuta.



Iturria: Aritza Kultur Elkarte.

SSak defentsa unitateak ziren, alderdi naziaren eskolta unitateak, gero, ordea, kontzentrazio eremuen ardura bere gain hartu zuten, baita konbatero unitate militarrek ere. Irudian ageri den Himmlerrek agindu zuen errepublikaren alde boluntario aritu ziren kideei Protective Custody aplikatzea, babes zaintza moduko bat, alegia. Adolforentzat ordea ez zen nahikoa izan.



Iturria: United States Holocaust Memorial Museum.

Emakumeak eta haurrak ere egon ziren Mauthausenen.

Kontzentrazio eremuak: bortizkeria legearen barruan

Atetik sartuko zarete baina tximiniatik atera beharko duzue

...De los 7200 prisioneros españoles en el campo de concentración nazi de Mauthausen 5000 murieron en el y solo unos 2200 vivieron para ser liberados... (Gerard Botz in Vilanova, M. (2014): Mauthausen, después. Voces de Españoles deportados. Cátedra: Madrid)


1938ko abuztuaren 8an iritsi ziren lehen presoak kontzentrazio esparru honetara; naziek eraiki zituzten beste hainbat eremu osatzeko asmotan (naziak Francoren aliatu ezin hobeak izan ziren). Geografikoki, Mauthausen izeneko herrixkan kokatua dago, Linzetik 20 bat kilometrotara, Austrian. Tokia aukeratzeko arrazoia, ondoan zegoen granitozko kantera izan zen.

Mauthausen, ondoan kokatua dagoen Gusen kontzentrazio esparruarekin osatzen da. Europa osoan III. graduako eremu gisara izendatu izan ziren: zera esan nahi zuen horrek Europan zehar barreiatuta zeuden eremuetatik gogorrenak hauek zirela: Reicharen aurkako etsai politikoki zuzendu ezinzentzat alegia. Eremu hauen helburu nagusia zera zen, Europa osoan zehar barreiatuta zeuden oporretatik politikoki eta ideologikoak -hots errejimene ezarriaren aurkakoak- bertan atxiki eta zigortzea. Heriotza tasarik handienetakoak izan zuten eremuak ziren hauek. Alemania nazian sortu ziren lehen eremu jendetsuak. Mendebaldeko aliatuek zein Errusiak askatzen azkenak.

1942-43 urteetan, eremu hauek helburu belikoak zituzten enpresei esku lana eskaintzeko prestatu ziren, lan behartua egiteko antolatuta. Honela, lan desberdinak egiteko, eremu bakoitzaren baitan beste azpi eremu batzuk antolatu zituzten naziek. 1945an Mauthausenen eta Gusen artean 84.000 atxilotu zeuden. Mauthausenen Europa osoko herritarrak zeuden, poloniarrek, errusiarrek eta hungariarrek nagusi baziren ere. Tartean ziren hainbat euskal herritar.

Kontzentrazio eremuko bizitzaren erdigunea granito harrobia zen. Non, heriotzarekin topo egin artean, lan egin behar izaten zen. Eskailera batek harrobia eta barrakoiak bereizten zituen. Bertan atxilotuek, piktaxioarekin eman eta eman granittoa atera behar zuten, lehengai horrekin, gero, Alemanian eraikin eta mausoleoak eraikitzen ziren (Vilanova: 71).

Nazien ideologian, lan behartuak oso elementu nabarmena izan ziren, euren pentsamendu errepresiboaren oinarrian kokatzen zen. Naziek argi zuten, lana eginaraztea modu behartuan, zigortzeko eta etsaia erditik kentzeko modurik egokiena zela. Eta halaxe aplikatzen zuten. Atxilotuek, hil arte lan egiten zuten. Soinean motxila bat zeramaten sokekin eta bertan 30 kg baino gehiagoko harritzarrek, hauek eskaileratik atera behar zituzten, bitartean guardiak eta zaintzaileak bizkarrean jotzen zieten, bultzaka. Egunean, 10 edo 12 aldez igotzen zituzten eskailerak.



Iturria: Concepcion Lozano Bengoa